

# BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTUA MEREZIMENDU LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA

## MEREZIMENDUEN BEHIN-BEHINEKO BALORAZIOARI BURUZKO AKTA

Arantzan, 2024ko irailaren 13an.

- **TOKIA:** Arantzako Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2024ko irailaren 13an.
- **ORDUA:** 12:30
- **BERTARATUAK:**
  - Epaimahai burua: Leire Mitxelena Gamio.
  - Mahaikidea: Patri Arburua Etxeberria
  - Mahaikidea-idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

Epaimahai Kalifikatzailea bildu da, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko merezimenduen behin-behineko balorazioa egiteko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Baloratuko diren merezimenduak, deialdiaren 7. oinarrian xedaturikoaren arabera, honako hauek dira:

***“7.-Merezimendu-lehiaketaren bidezko salbuespeneko prozeduraren nondik norakoak: baloratuko diren merezimenduak.***

***a) Merezimendu profesionalak: gehienez ere 60 puntu.***

*Administrazio publikoetan deialdia argitaratzen den egunera arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, gehienez 60 punturekin, puntuazio honen arabera:*

*a.1) Deialdia egiten duen toki erakundeetan eta haren erakunde autonomoetan, deialdiaren xedeko lanpostu berean, egindako zerbitzuak: 3 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.*

*a.2) Bertze administrazio publiko batzuetan lanpostu berean egindako zerbitzuak: 0,75 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.*

*a.1 eta a.2 ataletarako oharrak:*

*1.-Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen da.*

*2.-Gehienez ere 60 puntu emanen dira a) atal honetan.*

*3.-Zerbitzuak baloratuko dira zerbitzu bakoitzaren hasiera egunetik amaierara arte, egindako lanal-diaren ehunekoa edozein dela ere.*

*4.-Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.*

5.-Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan bete duen lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala kontatuko dira.

Izangaia zerbitzu berezietan egon bada beste arrazoi batzuegatik, edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

6.-Aurreko azpiataletan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Halakoetan, kasu bakoitzean handiena den puntuazioa emanen da.

Merezimendu profesionalak dagokion erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira. Ziurtagirian agertu behar dira zerbitzuaren iraupena, betetako lanbide-kategoria eta lan-bizitzaren txostena. Dokumentazio horretan agertu behar dira izendapenaren edo lan-harremanaren hasiera eguna eta amaiera eguna (edo, kasua bada, indarrean jarraitzen duela), izendapenaren eta kontratuaren xedea eta lanaldi mota.

Deialdia egiten duen toki erakundeari badagokio ziurtagiri hori ematea, eskatzaileak ez du aurkeztu beharko.

**b) Bertze merezimendu batzuk, gehienez ere 40 puntu:**

b.1) Deialdiko lanpostuarekin zerikusia duten titulazioak: 15 puntu gehienez ere.

b1 ataleko oharra:

Titulazioaren arabera puntuazio bat esleituko da eta titulaziorik altuenari dagokion puntuazioa soilik hartuko da kontuan:

- Batxilergoa, administrazio adarreko bigarren mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea: 9 puntu.

- Administrazio adarreko Unibertsitate titulazioa, hirugarren mailako Lanbide Heziketako edo balio-kidea: 15 puntu.

b.2) Deialdiko lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak eta mankomunitateko berariazko aplikazio informatikoen ikastaroak: 15 puntu gehienez ere orduko kopuruaren arabera banatuak.

Ondorengo ikastaroak egin izana baloratuko dira:

b.2.1. Erregistro elektronikoa, egoitza elektronikoa, espediente elektronikoak, administrazio publi-koaren prozedura, nominak eta gizarte segurantzaren kotizazioak, kontabilitate publikoa, datuen babesa eta langile publikoen araudia ikastaroak. 12 puntu gehienez ere.

b.2.2. Informatika ikastaroak (Office paketea orokorrean). 3 puntu gehienez ere.

b2 atalerako oharra:

Ikastaro bakoitzagatik jasoko den puntuazioa iraupenaren arabera banatuta egingen da ondoren adi-erazitako moduan:

- 5 ordu baino gutxiagoko ikastaroak: 0,10 puntu
- 5-10 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,20 puntu.
- 10-20 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,40 puntu.
- 20 ordutik gorako ikastaroak: 0,60 puntu.

*b3) Ingelesa, frantsesa eta alemana:*

*Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko hizkuntza horiek jakitea nahitaezkoa ez denean eta ezaugarrien taularen arabera: 10 puntu gehienez ere.*

*b3 ataletarako oharrak:*

*Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari aurreko ataletan hizkuntza bakoitzarentzat ezarritako ba-loraziorik handiena emanen zaio.*

*Titulu edo ziurtagiri hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 mailaren pareko titulu edo ziurtagiri bat izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 2/10 jasoko da; A2 mailaren parekoa izanez gero, 4/10; B1 mailaren parekoa izanez gero, 6/10; eta, B2 mailaren parekoa izanez gero, 8/10.*

*Nafarroako edozein toki erakundetako egonkortze-prozeduretan, izangaiek euskararen jakite-maila frogatzeko, merezimendu gisa zein nahitaezko betebeharrak gisa, Euskarabidea Euskararen Nafar Institutu-tuak euskararen jakite-mailari buruz emandako egiaztagiririk aurkez ditzakete, baliozkoak izanen baitira xede horretarako dauden titulazio ofizialez gain.*

***c) Epaimahaiak ezin izanen du inola ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez frogatu gabeko merezimendurik, eta ezin izanen du eman 7. oinarri honetan atal bakoitzerako adierazitako gehieneko puntuazioa baino altuagorik.***

***d) Behin merezimenduen balorazioa aurreko atalek ezarritakoari jarraikuz eginda, ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa frogatzen duten pertsonen lorturiko puntuazioari 1,5 puntu gehituko zaizkio guztira, zuzenketa-faktore gisa."***

Izangaiek egindako merezimenduen autobalorazio agiria ikusi da. Halaber, zenbait kasutan merezimendu profesionalak eta bertze merezimendu batzuk ongi baloratu ez direla antzeman da. Horiek egiaztatu eta zuzendu ondoren, honako hauek izan dira lortutako puntuazioak:

HAUTAGAIA	Merezimendu profesionalak		Bertze Merezimendu batzuk			Zuzenketa faktorea	GUZTIRA
	a.1.	a.2.	b.1.	b.2.	b.3.		
LOREA ELIZALDE FAGOAGA	0	14,31	15	1,6	0	-	30,91
GOTZON MIREN ARENAS SALAZ	0	3,73	15	2	0	-	20,73
IXONE GOYA ARRECHEA	0	1,68	9	3,2	0	-	13,88
ITZIAR TORRES CORDOBA	29,49	0,05	15	4,9	10	-	59,44

Ondorioz, Epaimahai Kalifikatzaile honek erabaki du:

1.- Akta hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateko webguneko egonkortze prozesuaren atalean argitaratzea.

2.- Bortz egun balioduneko epea ematea interesdunek, hala badagokie, egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.



**EPAIMAHAI BURUA,**

**MAHAIKIDEA,**

**MAHAIKIDEA-  
IDAZKARIA,**

Leire Mitxelena Gamio

Patri Arburua Etxeberria

Nagore Madariaga Iriarte